

**ACUERDO DEL CONSEJO DE GOBIERNO POR EL QUE SE APRUEBAN LAS NORMAS REGULADORAS DEL ACCESO Y MANTENIMIENTO DE LAS ASOCIACIONES DE ESTUDIANTES EN EL REGISTRO DE ASOCIACIONES DE ESTUDIANTES DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

Los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra fueron objeto de modificación por Acuerdo del Gobierno de Navarra de 21 de marzo de 2011.

El artículo 97 de los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra, contemplan en su apartado h), entre otros derechos de los estudiantes el de *disponer de los medios que hagan posible el ejercicio efectivo de su derecho de asociación, dentro de las disponibilidades de la Universidad*. Por otra parte, el artículo 98 de los Estatutos establecen en sus apartados b) y d), entre otros deberes de los estudiantes, el de *hacer un correcto uso de sus instalaciones, bienes y recursos, así como cooperar con el resto de la comunidad universitaria en el buen funcionamiento de la Universidad*.

La Vicerrectora de Estudiantes y Empleo, atendiendo a los fines perseguidos de la Universidad Pública de Navarra, y teniendo en cuenta los derechos y deberes de los estudiantes, ha propuesto una nueva normativa que regule el Registro de las Asociaciones de Estudiantes, que se acomode tanto a los vigentes Estatutos de 2011, como a los fines propios de la Universidad Pública de Navarra, y que atienda a las pretensiones que, como asociaciones, puedan tener los estudiantes de esta Universidad.

A propuesta de la Vicerrectora de Estudiantes y Empleo, el Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 18 de febrero de 2015

**ACUERDA**

Primero.- Aprobar las Normas Reguladoras del acceso y mantenimiento de las Asociaciones de Estudiantes en el Registro de Asociaciones de Estudiantes de la Universidad Pública de Navarra.

Segundo.- Publicar el presente Acuerdo en la página web de la Universidad.

EL PRESIDENTE / BATZORDEBURUA

Julio Lafuente López  
Rector /Errektorea

**GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKIA, NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN IKASLEEN ELKARTEEN ERREGISTROAN SARTZEKO ETA BERTAN IRAUTEKO IKASLEEN ELKARTEEK BETE BEHAR DITUZTEN ARAU ERREGULATZAILEAK ONESTEN DITUENA**

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuak aldatu egin ziren 2011ko martxoaren 21ean Nafarroako Gobernuak hartutako erabaki baten bidez.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutueta 97. artikulua h) idatz-zatian, ikasleek dituzten hainbat eskubideren artean, hau ezartzen du: *elkartzeko eskubidea erabilgarri egiten duten baliabideak beren esku izatea, Unibertsitatearen ahalmenen arabera*. Bestalde, Estatutueta 98. artikulua b) eta d) idatz-zatietan, ikasleek dituzten hainbat betebeharren artean, hau ezartzen du: *haren instalazio, ondasun eta baliabideak zuzen erabiltzea, eta Unibertsitateko komunitateko gainerakoekin elkarlanean aritzea Unibertsitateak ongi funtzionatu dezan*.

Ikasleen Gaietarako eta Enplegu errektoreordeak, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren helburuei jarraiki, eta ikasleek dituzten eskubideak eta betebeharrak kontuan hartuta, Ikasleen elkartearen erregistroa arautuko duen arautegi berri bat proposatu du, bai 2011ko Estatutueta, bai Nafarroako Unibertsitate Publikoaren helburuetara egokituko dena, eta Unibertsitate honetako ikasleek elkarte gisa dituzten nahiak beteko dituena.

Beraz, honako hau da Gobernu Kontseiluak, 2015ko otsailaren 18ko bileran, Ikasleen Gaietarako eta Enplegu errektoreordeak hala proposaturik, hartu duen

**ERABAKIA**

Lehen.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleen elkartearen erregistroan sartzeko eta bertan irauteko ikasleen elkarteek bete behar dituzten arau erregulatzailerak onestea.

Bigarrena.- Erabaki hau Unibertsitatearen web-orrialdean argitaratzea.

**NORMAS REGULADORAS DEL ACCESO Y MANTENIMIENTO DE LAS ASOCIACIONES DE ESTUDIANTES EN EL REGISTRO DE ASOCIACIONES DE ESTUDIANTES DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN IKASLEEN ELKARTEEN ERREGISTROAN SARTZEKO ETA BERTAN IRAUTEKO IKASLEEN ELKARTEEK BETE BEHAR DITUZTEN ARAU ERREGULATZAILEAK**

*ARTÍCULO 1º-. Disposiciones Generales*

El objeto de las presentes Normas es establecer los requisitos que deben reunir las Asociaciones de Estudiantes para acceder y mantenerse inscritas en este Registro de Asociaciones de Estudiantes de la Universidad Pública de Navarra, así como los derechos y deberes que implica esta inscripción.

El Registro de Asociaciones de Estudiantes de la Universidad Pública de Navarra es único, y está adscrito a la Secretaría General de la Universidad Pública de Navarra.

*ARTÍCULO 2º-. Concepto de Asociación de Estudiantes de la Universidad Pública de Navarra*

Serán consideradas Asociaciones de Estudiantes de la Universidad Pública de Navarra todas aquellas que se constituyan y registren con arreglo a lo dispuesto en las presentes Normas y que, conforme a los principios de participación y representación democráticas, tengan como fines la educación superior, la promoción de la cultura, la defensa de los bienes culturales y universitarios, el desarrollo científico, cultural y artístico, la preparación para el ejercicio de actividades profesionales u otros análogos, de acuerdo con los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra y disposiciones concordantes.

Quedan excluidas de estas Normas todas aquellas asociaciones que tengan ánimo de lucro, así como aquellas que sean contrarias a los fines establecidos en los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra.

*ARTÍCULO 3º-. Efectos de la Inscripción*

La inscripción en el Registro de Asociaciones de Estudiantes de la Universidad Pública de Navarra será requisito previo imprescindible para poder ser beneficiario de la concesión de espacios físicos en los Campus Universitarios, así como para ser beneficiarios de las ayudas a Asociaciones de Estudiantes financiadas por la Universidad Pública de Navarra.

La concesión de espacios físicos podrá ser

*1. ARTIKULUA. Xedapen orokorrak*

Arau hauen helburua da ezartzea zer baldintza bete behar dituzten ikasleen elkarteek Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikasleen Elkartearen Erregistroan sartzeko eta bertan irauteko, baita izen emate honek dakartzan eskubideak eta betebeharrak ere.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikasleen Elkartearen Erregistroa bakarra da, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Idazkaritza Nagusiari atxikia dago.

*2. ARTIKULUA. Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleen elkartearen kontzeptua*

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikasleen Elkarteak dira arau hauetan ezartzen denaren arabera eratzen eta erregistratzen diren guztiak, eta parte-hartze eta ordezkapen demokratikoen printzipioekin bat etorritik, helburu hauek dauzkatenak: goi mailako hezkuntza, kulturaren sustapena, unibertsitatearen ondasun kulturalen defentsa, garapen zientifiko, kultural eta artistikoa, jarduera profesionalean aritzeko prestakuntza sustatzea, eta antzeko beste batzuk, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuekin eta haiekin bat datozen xedapenek ezartzen dutena betez.

Arau hauetatik kanpo geldituko dira dirua irabazteko asmoa daukaten elkarte guztiak, baita Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuek ezartzen dituzten helburuen aurkakoak ere.

*3. ARTIKULUA. Izena ematearen ondorioak*

Unibertsitateko campusetan espazio fisikoak eduki ahal izateko, aldeztu aurretiko baldintza izango da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikasleen Elkartearen Erregistroan izena emanda egotea, baita Nafarroako Unibertsitate Publikoak finantzatzen dituen ikasleen elkarteentzako diru-laguntzen onuraduna izateko ere.

Espazio fisikoen lagapena behin-behinekoa edo

provisional o de duración indefinida. En cualquier caso estará supeditado a los fines y actividades que desarrolle la Asociación, y a la disponibilidad de espacios físicos con las que cuente la Universidad Pública de Navarra para el ejercicio de sus funciones.

La concesión de ayudas estará supeditada además de al cumplimiento de los requisitos exigidos en las presentes Normas, al cumplimiento de los requisitos que se exijan en cada convocatoria.

*ARTÍCULO 4º-. Requisitos mínimos para el reconocimiento como Asociación de Estudiantes de la Universidad Pública de Navarra*

Serán requisitos imprescindibles para acceder a la inscripción en el Registro de Asociaciones de la Universidad Pública de Navarra:

1. Contar como mínimo con 24 asociados, que sean estudiantes de la Universidad Pública de Navarra, matriculados en alguna de las enseñanzas siguientes:
  - Enseñanzas conducentes a la obtención de títulos oficiales con validez en todo el territorio nacional en la fecha de convocatoria de las elecciones.
  - Enseñanzas propias que tengan una extensión mínima de 30 ECTS por curso académico.
2. Los miembros de la Junta Directiva u Órgano Colegiado de Gobierno de la Asociación, así como su Presidente o el asociado que ostente la máxima representación de la Asociación, deberán ser, en todo caso, estudiantes de la Universidad Pública de Navarra de alguna de las enseñanzas mencionadas en el apartado anterior.
3. Los estudiantes miembros de una Asociación de la Universidad Pública de Navarra no podrán pertenecer, simultáneamente, a otra Asociación Estudiantil de esta Universidad.
4. Los Estatutos de la Asociación deberán estar registrados en el Gobierno de Navarra.
5. La Asociación deberá estar dada de alta en el Registro de Personas Jurídicas y, en consecuencia, deberá estar en posesión del código de identificación fiscal (CIF).

Las Asociaciones inscritas en el Registro de Asociaciones de Estudiantes de la Universidad Pública de Navarra, tendrán su domicilio social en los Campus de Pamplona o Tudela de la Universidad Pública de Navarra.

mugagabea izango da. Edonola ere, elkarteak garatzen dituen helburu eta jardueren araberakoa izango da, eta horiek betetzeko Nafarroako Unibertsitate Publikoak eskura dituen espazio fisikoen araberakoa.

Diru-laguntzak eskuratu ahal izateko, arau hauetan ezartzen diren baldintzak bete behar dira, baita deialdi bakoitzean eskatzen diren baldintzak ere.

*4. ARTIKULUA. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikasleen Elkarte izateko gutxienezko baldintzak*

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikasleen Elkartearen Erregistroan izena emateko betebeharreko baldintza ezinbestekoak hauek dira:

1. Gutxienez 24 elkartekide izatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleak direnak eta ondoren aipatzen diren irakaskuntzetako batean matrikulatuta daudenak:
  - Nazioaren lurralde osoan balio duten titulu ofizialak lortzera bideratutako ikasketetan, hauteskunde deialdia egiten den egunean.
  - Ikasturte bakoitzeko, gutxienez ere, 30 ECTS dituzten ikasketa berekiak.
2. Elkartearen Zuzendaritza Batzordeko edo Gobernu-organo Kolegiatuko kideak, bai eta bere burua ere, edo elkartearen ordezkari gorenaren duen elkartua, aurreko idatz-zatian aipatu diren ikasketetako bat egiten ari diren Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleak izango dira.
3. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren elkarte bateko kideak ezin izango dira Unibertsitate honen beste ikasleen elkarte bateko kide izan, aldi berean.
4. Elkartearen estatutuak Nafarroako Gobernuan erregistratuta egongo dira.
5. Elkarte Pertsona Juridikoen Erregistroan egongo da alta emanda, eta ondorioz, identifikazio fiskalerako kodea (IFK) edukiko du.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikasleen Elkartearen Erregistroan izena emanda dauden elkarteek Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Iruñeko edo Tuterako campusean edukiko dute egoitza soziala.

## ARTÍCULO 5º-. Procedimiento de inscripción

5.1- La solicitud de inscripción en el Registro de Asociaciones de la Universidad Pública de Navarra, se realizará por el Presidente o por el asociado que ostente la máxima representación de la Asociación y en nombre de esta, mediante escrito dirigido al Vicerrector competente en materia de Estudiantes.

5.2- A la solicitud de inscripción en el Registro se deberá acompañar:

- Ejemplar de los Estatutos de la Asociación previamente registrados en el Registro de Asociaciones del Gobierno de Navarra.
- Número de personas que integran la Asociación.
- Justificar el hecho de que, al menos, 24 asociados, son estudiantes de la Universidad Pública de Navarra de alguna de las enseñanzas mencionadas en el artículo 4.1., indicando expresamente los estudios que cursan, el nombre y apellidos y su nº de DNI o Pasaporte.
- Relación de miembros de los órganos de gobierno y representación de la Asociación, indicando los estudios que cursan en la Universidad y las direcciones, teléfonos de contacto, y cuentas de correo electrónico de la Universidad a efectos de comunicaciones y notificaciones
- Fotocopia del C.I.F.

5.3- Corresponde al Secretario General de la Universidad la inscripción efectiva en el registro de asociaciones, a propuesta del Vicerrector competente en materia de Estudiantes

Presentada la solicitud junto con la documentación, el Vicerrector competente en materia de Estudiantes, emitirá el correspondiente informe sobre la inscripción. Cuando el informe sea favorable, lo remitirá junto con la documentación de la solicitud de la Asociación al Secretario General, para que proceda a la inscripción efectiva de la misma en el Registro de Asociaciones de Estudiantes de la Universidad Pública de Navarra.

En el supuesto que la solicitud no sea considerada correcta, o no pueda practicarse la inscripción por insuficiencia de datos o defectos en la documentación presentada, se requerirá desde el Vicerrectorado al solicitante, para que en el plazo máximo de 15 días naturales, proceda a su subsanación. Transcurrido dicho plazo sin que se subsane o complete la documentación, se entenderá que se desiste de la inscripción solicitada.

## 5. ARTIKULUA. Izena emateko modua

5.1- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikasleen Elkartearen Erregistroan izena emateko eskaera elkarteko buruak edo elkartearen ordezkari gorenak daukan kideak egingo du, elkartearen izenean, ikasleen gaietan eskumena duen errektoreordeari zuzendutako idazkiaren bidez.

5.2- Erregistroan izena emateko eskaerarekin batera, hauxe gaineratuko zaio:

- Elkartearen Estatutuen alea. Estatutuek aldeztu aurretik erregistratuta egon behar dute Nafarroako Gobernuaren Elkarte Erregistroan.
- Elkarteak zenbat kide dituen.
- Gutxienez 24 kide Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleak direla justifikatzea, 4.1 artikuluan ezartzen den ikasketaren batean, berariaz adieraziz zer ikasten ari diren, beren izen-abizenak eta NAN edo pasaporte zenbakiak.
- Gobernu organoetako kideen zerrenda eta elkartearen ordezkariena, esanez zer ikasketak egiten ari diren Unibertsitatean eta beren helbideak, telefono zenbakiak eta Unibertsitatearen posta elektronikoa, komunikazioak eta jakinarazpenak bidali ahal izateko.
- I.F.K-ren fotokopia.

5.3- Unibertsitatearen idazkari nagusiari dagokio elkartearen erregistroan indarrean jartzea izen-ematea ematea gauzatzea, ikasleen gaietan eskumena duen errektoreordeak proposamena egin ondoren.

Eskaera eta dokumentazioa aurkeztu eta gero, ikasleen gaietan eskumena duen errektoreordeak dagokion txostena idatziko du izena emateari buruz. Txostena aldekoa denean, elkartearen eskaeraren dokumentazioarekin batera, idazkari nagusiari bidaliko dio, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikasleen Elkartearen Erregistroan elkartearen izen-ematea indarrean jar dezan.

Eskaera ez bada zuzentzat jo, edo izen-ematea ezin bada gauzatu daturen bat falta delako edo aurkeztu den dokumentazioan akatsak daudelako, Errektoreordetzak eskatzaileari esango dio 15 egun naturaleko gehieneko epea duela datuak osatzeko edo akatsak zuzentzeko. Epe hau igarotzen bada eta datuak osatzen edo akatsak zuzentzen ez badira, eskatutako izen-emateari uko egiten zaiola ulertuko da.

*ARTÍCULO 6º-. Obligaciones de las Asociaciones inscritas*

Las asociaciones inscritas en el Registro deberán mantener las condiciones y requisitos exigidos para su inscripción, y ajustar su actuación a los fines y objetivos establecidos en las presentes Normas y en los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra, debiendo comunicar cualquiera variación al Vicerrectorado competente en materia de Estudiantes.

En cualquier momento podrán ser requeridas por el Vicerrectorado competente en materia de Estudiantes para la comprobación y acreditación de dichas condiciones y requisitos, así como del cumplimiento de los fines y objetivos.

Sin perjuicio del requerimiento mencionado, en el inicio de cada curso académico las Asociaciones deberán acreditar ante el Vicerrectorado competente en materia de Estudiantes que un mínimo de 24 asociados, así como los miembros de la Junta Directiva u Órgano Colegiado de Gobierno de la Asociación, y su Presidente, son estudiantes de la Universidad Pública de Navarra, y facilitar la relación de estos estudiantes, indicando el nombre y dos apellidos, los estudios en los que están matriculados en el respectivo curso académico, y los demás datos señalados en el apartado 2 del artículo 5.

*ARTÍCULO 7º-. Asientos y Publicidad de la inscripción*

En el Registro de Asociaciones se practicarán los asientos de inscripción, de modificación o de cancelación de la asociación correspondiente. En cada asiento además de los datos de la asociación se consignará la fecha en que se realice y la firma del responsable del registro.

Las inscripciones en el registro serán públicas.

*ARTÍCULO 8º-. Cancelación de la inscripción*

La cancelación de la inscripción se producirá como consecuencia de la extinción de la Asociación o por incumplimiento de las condiciones, obligaciones y requisitos establecidos en las presentes Normas, en los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra y disposiciones concordantes.

En el supuesto en que se produzca el incumplimiento de las obligaciones citadas, por el Vicerrectorado competente en materia de Estudiantes, se requerirá a la asociación para que alegue o justifique los motivos del citado incumplimiento, transcurrido el plazo de un mes sin que se produzca el cumplimiento de las mismas o se alegue causa justificada para ello, se

*6. ARTIKULUA. Izena eman duten elkarteen betebeharrak*

Erregistroan izena emanda dauden elkarteek eutsi egin beharko diete izena emateko eskatu zitzaizkien baldintzei, eta beren helburuak eta jarduerak ere arau hauek eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuek ezartzen dituztenekin bat etorriko dira, eta edozein aldaketa bada, ikasleen gaitan eskumena duen Errektoreordetzari jakinaraziko diote.

Edozein unetan ikasleen gaitan eskumena duen Errektoreordetzak eskatzen ahalko die aipatu baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztela baieztatzeko eta egiaztatzeko, baita beren helburuak.

Aipatu eskaera hori galarazi gabe, ikasturte bakoitzaren hasieran elkarteek egiaztatu beharko dute ikasleen gaitan eskumena duen Errektoreordetzaren aurrean gutxienez haien 25 kide, baita elkartearen zuzendaritza batzordeko edo gobernu organo kolegiatuko kideak, eta elkarteburua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleak direla. Orduan aurkeztu beharko dute ikasle hauen zerrenda, esanez izena eta bi deiturak, ikasturte horretan zer ikasketetan dauden matrikulatuta eta 5. artikuluko 2. atalean ezartzen diren gainerako datuak.

*7. ARTIKULUA. Idazpenak eta izen-ematearen publizitatea*

Elkartearen Erregistroan dagokion elkartearen izen-ematearen, aldaketaren edo iraungitzearen idazpenak egingo dira. Idazpen bakoitzean, elkartearen datuez gainera, egin den eguna eta erregistroko arduradunaren izenpea jasoko dira.

Erregistroko idazpenak publikoak izango dira.

*8. ARTIKULUA. Izen-ematea bertan behera uztea*

Izen-ematea bertan behera utziko da elkarteira iraungitzen denean, edo arau hauetan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuetan eta haiekin bat datozen xedapenetan ezartzen diren baldintzak, betebeharrak eta helburuak betetzen ez badira.

Aipatu betebeharrak betetzen ez badira, ikasleen gaitan eskumena duen Errektoreordetzak eskatuko dio elkarteari justifika ditzan ez-betetzearren arrazoiak. Hilabete igarotzen denean, eta epe horretan ez badira betebeharrak betetzen, edo ez bada justifikatzen zergatik ez diren betetzen, elkartearen izen-ematea kenduko da Erregistrotik, ofizioz.

procederá a la cancelación de oficio de la inscripción en el Registro.

#### *Disposición Adicional*

Las denominaciones relativas a los órganos unipersonales contenidas en estas Normas, a sus titulares e integrantes de las Asociaciones que se efectúen en masculino, se entenderán hechas indistintamente en género femenino, según el sexo de la persona a quienes dichas denominaciones afecten.

#### *Disposición Transitoria*

Las Asociaciones de Estudiantes constituidas e inscritas en el Registro de la Universidad Pública de Navarra de conformidad con la normativa anterior, deberán ajustarse a lo dispuesto en las presentes Normas el primer semestre del curso académico 2014/2015, debiendo acreditar documentalmente el cumplimiento de estos requisitos antes del 28 de febrero de 2015. Caso contrario, perderán la condición de Asociación de Estudiantes de la Universidad Pública de Navarra y se procederá a la cancelación de su inscripción en el Registro de Asociaciones de Estudiantes.

#### *Disposición Derogatoria*

Quedan derogadas las disposiciones y normas de la Universidad Pública de Navarra anteriores a las presentes Normas relativas al registro y constitución de las Asociaciones de Estudiantes, y cuantas normas de igual o inferior rango se opongan al mismo.

#### *Disposición Final*

Las presentes Normas entrarán en vigor el día siguiente al de su aprobación por el Consejo de Gobierno.

#### *Xedapen Gehigarria*

Arau hauetan, gaztelaniazko bertsioan, dauden pertsona bakarreko organoei eta elkarteetako kideei dagozkien izenen genero maskulinoa femeninoa dela ulertuko da, aipatu organoak edo kideak emakumezkoak direnean.

#### *Xedapen Iragakorra*

Aurreko araudien arabera Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Erregistroan eratu eta izena eman duten ikasleen elkarteak, arau hauek ezartzen dutenari egokitu behar zaizkie 2014/2015 ikasturtearen lehen seihilekoan, eta agiri bidez erakutsi beharko dute betetzen dituztela betebeharrak 2015eko otsailaren 28a baino lehen. Hala ez bada, ez dira izango jada Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikasleen Elkarte, eta beren izena kenduko da Ikasleen Elkarten Erregistrotik.

#### *Xedapen Indargabetzailea*

Arau hauek baino lehen zeuden Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikasleen elkarten izen-emateari eta erregistratzeari buruzko lehenago arauak indarra galduko dute, baita arau hauen aurka egiten duten lerrun bereko edo gutxiagoko gainerako arauak ere.

#### *Azken Xedapena*

Gobernu Kontseiluak onetsi, eta biharamunean hartuko dute indarra arau horiek.

EL PRESIDENTE / BATZORDEBURUA

Julio Lafuente López  
Rector /Errektorea